

IRAKURGAIA

Laika, lehen txakur astronauta

Laika izeneko txakurra izan zen Lurrari buelta eman zion lehen izaki biziduna.

Laika 1957ko azaroaren 2an jaurti zuten Sputnik 2 espazio-ontziaren barruan. Sobiet Batasunaren proiektu hark izugarrizko oihar-tzuna izan zuen, ordura arte bizidunik gabeko sateliteak baino ez baitziren espaziora bidali.

Sputnik 1 izan zen espaziora joan zen lehen satelitea eta 18 kiloko pisua zuen. Sputnik 2k, berriz, 113 kiloko pisua zuen, Laika barne. Orduan, ia pentsaezina zen hainbesteko pisua zuen espazio-ontzia aireratu eta Lurraren orbitan bueltaka jartzea, baina errusiarrek lortu egin zuten.

Laika txakurra Moskuko kale gorritik hartu eta espazio-ontziaren barruan ohitzeko trebatu zuten. Espazio-ontziak oxigenoa sortzen zuen tresna bat zuen eta baita gelatina moduko janaria ere.

Laikak bizirik astebete iraungo zuela uste zen orduan, baina orain kaleratu diren datuek alderantziz-koa diote. Dirudienez, Laika gaixoa estresak eta beroak jota hil zen, espaziora heldu eta ordu gutxira. Hala ere, espazio-ontziak 2.570 bira eman zizkion Lurrari, eta 1958ko apirilaren 4an, Lurreko atmosferan erre zen.

Askorentzat Laika ez da erraz ahaztuko den txakurra, hari esker bizidunok espaziora joan gaitezkeela frogatu zelako. Bestela, batek daki noiz helduko zen lehen astronauta espaziora!

Elhuyar aldizkaria

Erantzun galderei.

Noiz bidali zuten espaziora lehen izaki biziduna?

Zer izaki mota zen?

Non bizi zen Laika txakurra?

Zerez elikatu zen Laika espazio-ontziaren barruan?

Zenbat denbora uste zuten iraungo zuela Laikak bizirik? Zenbat iraun zuen?

Zer onura ekarri zigun Laikaren esperientziak?

Adierazi esaldi hauek E (egia) ala G (gezurra) diren.

- Laika izan zen Ilargiari bira eman zion lehen izakia.
- Sputnik 1 satelitea Sputnik 2 baino arinagoa zen.
- Espazio-ontzi barruan oxigenoa berez sortzen zen
- Laika gaixoa Lurreko atmosferan erre zen.
- Sputnik 2 urtebetez ibili zen Lurrari biraka.
- Laikari esker frogatu zen izakiek espaziora bidaiatu ahal dutela.

Bilatu testuan definizio bakoitzari dagokion hitza.

- Soinua errepikatuta entzutearen efektua:
- Sinesgaitza, imajinatu ezinekoa:
- Itzulinguruka, jiraka:
- Argitaratu, plazaratu:.....

Aukeratu. Zer esan nahi du esapide honek?

Laika gaixoa estresak eta beroak jota hil zen

- Estresaren eta beroaren eraginez, Laika zorabiatu egin zen.
- Laika txakurra estresaren eta beroaren erruz hil zen.
- Estresaren eta beroaren eraginez, Laika hilzorian geratu zen.

Lotu hiru zutabeetako hitz sinonimoak.

izugarritzko	egiaztatu	ailegatu
tresna	heldu	antza denez
alderantzizkoa	agidanean	itzelezko
frogatu	ikaragarritzko	erreminta
dirudienez	lanabesa	aurkakoa
iritsi	jaurti	bota
aireratu	kontrakoa	ziurtatu